

25 / osteguna **9:00**

Frontoian

**MEKANIZATZEKO
ERRAMINTEN EUSKAL AZOKA**

Mekanizatzeako erraminten euskal fabrikanteen erakusketa. Mekanizazio enpresei eta lanbide heziketa eskolei bideratua. Nazioarteko fabrikante batzuk ere egongo dira.

- Elebitan
- Gonbidapena eskatzeko car@carsuministros.com idatzi behar da.

(CAR Suministros industrialesek antolatuta)



25 / osteguna **18:00**


Liburutegian

IRAKURLE TALDEA

Taldekoa izan zein ez izan, etorri gurera, liburuak aitzakiatzat hartuta elkarrizketarako bideak zabaltzera! Hilabete honetako irakurgai: "Bekatua", Goiatz Labandibarrena.

- Euskaraz
- +16 urte

(Irakurle taldeak antolatuta)



NOTA

Toda la información en castellano en www.irura.eus o en la **oficina de cultura**



euskara



Irurako udala



kultur mahaia



castellano



27 / larunbata **16:00** San Migel plazan
IRURAKO HERRI KROSA

Haurrak 16:00etan eta helduak 17:00etan.

- Izen ematea:
Aurretik: www.kronoak.com: 5€
Egun berean: 16:00ak arte plazan: 7€
Haurrak doan.

**GOIZA PASA 2024
BEGIRALEAK**

Goiza Pasa udaleku irekietan begirale lanetan jarduteko izen ematea apirilaren 11a arte egongo da zabalik. Informazio guztia www.irura.eus -en aurkitu daiteke.


HAURRAK ETA NERABEAK

2008tik 2012ra jaiotako haurrentzat udaleku irekiak antolatuko dira.

- **Uztailaren 1etik 12ra**
- **Uztailaren 15etik 24ra**

2012tik 2008ra jaiotako nerabeentzat hainbat irteera eta ekintza antolatuko dira.

Izen ematea apirilaren 22tik maiatzaren 3ra www.irura.eus -en



UDALAREN BERRI IZAN NAHI AL DUZU?

Albisteak, ekitaldien agenda, udal erabakiak, lokalen erreserbak, etab. Udalaren inguruko informazioa jaso nahi izanez gero, bide ezberdinak dituzu eskura:

Webgunea: www.irura.eus

Mugikorrerako aplikazioa: **Irura app** (Play Store edota App Storen eskuragarri)

Sare sozialetan ere aurkituko gaituzu:

Twitter: https://twitter.com/irurako_udala

Instagram: https://www.instagram.com/irurako_udala/


Facebook: <https://www.facebook.com/irurakultura.irurakoudala>



**TAMAINA HANDIKO
HONDAKINAK**

Edukiontzien ondoan utzi daitezke hileko 1. Eta 3. Ostiral bezperan, 20:00etatik 22:00etara. Garbigunera ere eraman daitezke. Etxetresna elektriko berria erosiz gero, zaharra dendan ere utz daiteke.

Apirilak 4
Apirilak 18



**APIRILEAN
KIROLEZ
BLAI**



APIRILAK 23
LIBURUAREN EGUNA

10 / asteazkena **11:00**

San Migel plazatik abiatuta

IRURAKO ADINEKOAK SASOIKO EGOTEKO EGITASMOA

65 urtetik gorako pertsonen ibilbide bat egiten dute ariketa fisikoa bultzatu eta elkarren arteko harremanak sustatzeko. Ibilbidea hamaiketako batekin amaitzen da. Bi modutara har daiteke parte, erabiltzaile bezala edo mugikortasun arazoak dituztenei laguntzeko boluntario aurkeztuz. Nahi duenak 10 minutu lehenago luzatze ariketak egiteko aukera izango du.

- +65 urte

Oharra: laguntzaileak gazteagoak ere izan daitezke.



11 / osteguna **17:00** Udaletxeko ganbaran

ZORU PELBIKOA ZAINTZEN IKASTEKO TAILERRA

Gure zoru pelbikoa ezagutzeko, zaintzeko eta erreperatzen laguntzeko tailerra eskainiko du Sara Majarenas Ibarreta fisioterapeutak. Saio teoriko eta praktikoa izango da.

- Euskaraz
- Emakumeentzat
- Plazak mugatuak dira. Ezinbestekoa da aurrez izena ematea. Horretarako, emaila bidali **iruramoretuz@gmail.com** helbidera. Plaza baina izen-emate gehiago badaude, zozketa egingo da.

(Irura Moretuz Talde Feministak antolatuta)



12 / ostirala **9:00** Frontoian

"DESBERDINTASUNA BIZI"

KIROL EGOKITUARI BURUZKO SENTSIBILIZAZIO TAILERRA

Inklusioak eta aniztasunarekiko errespetuak bizitzeko esparru guztietan du garrantzia, baita kirolean ere. Tailer honen bidez, Lh3tik Lh6ra arteko ikasleak, kirolean eragin dezaketen urritasun mota ezberdinak ezagutu, bizitu eta ulertzen saiatzea nahi da, errealitate horiek norberaren azalean era ludiko baten bitartez.

- Euskaraz
- LH3tik LH6ra arteko Irurako Ikastolako ikasleentzat

(Irurako Ikastolak eta Irurako Udalak antolatuta)



13 / larunbata **11:00** San Migel plazan

SPINNING HERRIKO PLAZAN

Spinning bizikletak jarriko dira plazan eta saio ireki bat egingo da irakasle batek gidatua.

- Euskaraz
- + 16 urte
- Izen ematea apirilaren 11 arte

688874896 telefono zenbakira whatsapp-a bidaliz.



13 / larunbata **16:00** San Migel plazan

MAHAI TENIS SAIOA KALEAN

Mahai tenis saioa Oargi mahai tenis taldearen laguntzarekin.

Saioa hiru zatitan banatuko da:

- 1.- mahai-teniseko arauak. Ping-pong eta mahai-tenisaren arteko ezberdintasuna, pala heltzeko modu egokienak...
- 2.- eskubiz egiten den kolpe laua eta errebesez eginiko kolpe laua.
- 3.- txapelketak parte hartu nahi duten haur eta helduen artean.

- Euskaraz
- LH3 tik aurrerako haurrak eta helduak



19 / ostirala **17:00** Frontoian

KIROL SALTSA

LH3 eta LH6 bitartekoek 6 taldetan banatuta lau kirol-joko ezberdinetan parte hartuko dute. Futbola, saskibaloia, skate-irristaka eta xarea.

- Euskaraz
- LH3 – LH6
- Izen-ematea Irurako Ikastolan edo kultura bulegoan apirilak 15 arte.

20 / larunbata **17:00** Udaletxeko ganbaran

YOGA ETA BIBRAZIO BAINUA

Yoga Indian sortu zen disziplina fisiko, espiritual eta mental tradizionala da. Zure barnearekin konektatzeko espazio bat izango da non amaitzeko bibrazio bainuaren bidez aldarteak hobetzeaz gain meditazio egoera sakon eta birsortzaileak lortzen lagun dezakeen relajazio sakon bat izateko aukera izango duzu.

Yoga; Itxaso Anasuya. Bibrazio bainua; Sarota eta Gaxpi Lilakantha. Ekarrri beharrekoa; manta (yogako takoa eta esterila eduki ezkerro).

- Euskaraz
- +16 urte
- Izen-ematea liburutegian 10 € ordainduz

Oharra: Gutxienez 10 lagun eta gehienez 35-40 lagun.

(Irura Bizi elkarteak antolatuta)



21 / igandea **18:30** Ostatuan

BAILARAKO GAZTEEN BERTSO SAIOA

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako sailkapena baliatuz bertan parte hartuko duten bailarako bertsolari gazteekin bertso saioa egingo da, hurrengo urteetarako bailarako gazteen saio bezala mantentzeko asmoz gainera.

- Euskaraz
- Publiko guztia

(Aitor Mendiluzek antolatuta)



24 / asteazkena **17:45** Liburutegian

IPUIN KONTAKETA: "KONTUAK ETA KANTUAK LIBURUAREN EGUNA OSPATZEKO"

Liburuaren egunaren bueltan, liburuetan aurkitu ditzakegun altxorak bilatu eta kontatuko ditugu, Itziar Saez de Ojer kontalariaren laguntzarekin.

- Euskaraz
- 3-11 urte bitartekoentzat

